



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

## **Bizkaiak badenen instalazinoari buruzko foru araudia apliketako eskatu deutse udalei**

Bilbon, 2014ko apirilaren 4an

Bizkaian badenen eta zarata egiten daberen instalazinoak ekainaren 22ko 88/2010 Foru Dekretu bitartez dago araupetuta Lurraldeko errepide foru sarean. Udalen esku dagozan bideetan ez da derrigorrez bete behar arau hori, baina udalek kontuan izaten, euren kaleetan abiadura murrizteko elementu horreek instalatuko orduan. Batzarretako taldeak ez dira ados jarri udalerrri guztietan aholku horreek betetan diran ala ez esateko orduan, baina Bizkaiko Batzarrak aho batez onartu dau udalei alderdi hori araupetu daien edo, bestela, beste administrazio batzuen araudia euren gainean daien eskatzea. Itziar Garamendi Herri Lanetako diputatuak be esan dau hori, Arartekoak gai horren ganean emondako aholkuak jasoz.

Aldundiko arduraduna Bizkaiko Batzarretako Herri Lan eta Garraioetako batzordera joan da gaur goizean, PP-k eskatuta, Bizkaian badenak eta alerretako zeharkako bandak (AZB-BTA) jarteko baldintzak zeintzuk diran argitu daian, aginpideduna udala izan edo Aldundia izan, eta zeintzuk diran aitatutako segurtasun-neurriok jarteko eskatu behar diran baimenak eta emon behar diran pausuak. Bere berbetan, neurri horreen azken helburua “trafikoaren eta ingurunearen segurtasuna bermatzea da”.

Badenei edo abiadura murrizteko gailuei jagokenez, ezin dira “Lehentasunezko” edo “Oinarrizko” sarean jarri, ezta uri barruko errepide baten lehenengo 50 metroetan be, eta ezta larrialdietako ibilgailuen edo txirridularien presentzia ohikoa dan zatietan, beste batzuen artean. Arau orokor moduan, abiadura txikia dan lekuetan baino ezin dira instalau, oinezkoak ibiltzen diran eta espaloiak dagozan puntuetan.

AZB-BTA-ei jagokenez, gidariari, abiadura murriztu behar dauen leku batera hurreratzen dagoala edo bere arreteta handitu behar dauela jakinarazo gura jakon lekuetan jarri behar dira, gehienetan herritarrak bizi diran lekuetatik kanpo, ibilgailuak igarotzen sortzen dan “zarata dala eta”.

Garamendik gogoratu dauenez, arau horreek errepide foru sarean aplikatu behar dira, baina ez udalen esku dagozan bideetan, “baina badakigu holango araubiderik ez daukien udalerrri askok erreferentziazko eskuliburu moduan erabilten dabela”, esan dau. PP taldeari emondako erantzunean, diputatuak baieztu dau bide segurtasuneko elementu horreek instalatuko beharrezkoa dala jagokon “egokitasun azterlana” egitea, eta azterlan hori berak zuzentzen dauen sailak edo uri barruko bideetan abiadura murriztuko dauen elementua instalau gura dauen Udalak idatzi behar dauela.

PP eta PSE taldeen ustez, arau hori “ez da betetan” Udal askotan. “Beharbada, udal araua aldatu egin beharko litzateke”, esan dau Jesús Isasi popularrak. Gai horri “bueltea emon behar jako”, udalek “gura daberen moduan” jarten dituelako, eta “gehienetan” ez dabelako foru araudia betetan, gehitu dau Joaquín Colmenero sozialistak.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

EH Bilduk be gogoratu dau araua betetea ez dala derrigorrezkoa, baina, halanda be, Aitor Torrek ez dau uste ez betete egoerarik dagoanik. Dana dala, bere eretxiz, gai horrek “arreta handiagoa merezi dau”, badenek eragina daukielako “taxi eta autobus gidarien laneko osasunean”, eta zarata egiten daben bandak “arriskutsuak” diralako txirringularientzat.

#### HORMIGOI PLANTEA GEREDIAGA-ELORRIO ERREPIDEAN

Beste alde batetik, Garamendik, Gerediaga-Elorrio autobidea eregiteko Abadiño eta Atxondo arteko muga dagoan hormigoia plantaren instalazioa errepide horren eraikuntza proiektuan zein lan horren Ingurumen Eraginari buruzko Adierazpenean jasota dagoala baieztatu dau. Aurretik Aitor Torre EH Bilduko bozeroaleak hori ez dala holan esan dau. Bere berbetan, obra horretara hormigoia hornitzeko planteak “ilegala da, ez daukalako Abadiñoko Udalak emon beharreko jarduerarako lizentziarik”.

Diputatuak esan dau bere saila ez dagoala “ezelango ilegaltasunik” egiten. “Abadiñoko Udalarik jagoko udal lizentzia beharrezkoa dan ala ez erabagitea”, esan dau, eta Nerea Ahedo jeltzaleak geroago baieztatu dauenez, udalerriak ez dau ezer esan. “Udala bera da lizentzia beharrezkoa dan ala ez erabagi behar dauena. Aldundiari ez dala beharrezkoa iruditu jako, elementu auxiliarra dalako”, adierazo dau Ahedok.

Garamendik, errepide horren inguruan eten barik “zalantzak” sortzen ibiltea aurpegiatu deutso Torreri, Batzar Nagusietan “klasiko” bilakatu, EH Bilduk ez dauelako bide horren beharrean eta erabilgarritasunean sinisten, baina koalizio abertzaleko bozeroaleak ezeztu egin dau hori guztia. “Bitxia iruditzen jat guzur batean edo errealdadea ez ezagutzean oinarrituz batzorderatze eskari hau sortzea, eta zuk Gerediaga-Elorrio errepidearen ganeko edozein abagune negatibo mahai gainean jarteko erabiltea”, aurpegiatu deutso diputatuak.

#### AGREGAKINEN GARRAIOLARIEI EGIN BEHARREKO ORDAINKETEN ATZERAPENA

Beste alde batetik, PSE-EE taldeak diputatuaren presentzia eskatu dau batzordean, herri lanen esleipenak dituen enpresen aldetik agregakinen garraiolariei ordaintzeko erabilten dituen epeen luzapena salatzen, eta Aldundiari, horren gainean zer edo zer egin daitekean itauntzeko. Isaac Fernández sozialistak esan dauenez, enpresa batzuk epe horreek luzatzen ari dira. “kobretako epea bataz beste 210 egunekoa da, eta badagoz epe hori 350 egunetara luzatu dan kasuak”, Berankortasunaren aurkako uztailaren 5eko 15/2010 Legeak, “ordainketarako epea enpresen kasuan 60 egun baino gehiagokoa izan ez daiten” neurriak ezarten dituan arren.

Aldundiak “badaki” oso garrantzitsua dala beharra kobretako epeak betetea, eta, hori dala eta, foru herri lanen kontratuak arautzen dituen pleguetan beren beregi ezarten dira kontratistak, kobreteak “legez ezarritako epeen barruan” bermatzeko dituan beharrak, eta ez beteteren bat gertatzen bada hartu beharreko neurriak jasoten dira.

Garamendik gogoratu dauenez ez ordainketaren bat gertatzen bada eta azpi-kontratistak Interbiak-i jakinarazoten badeutso, erakunde horrek erreklamautako kopuruari “eusteko” gaitasuna dauka, erreklamazioa ebatzi arte. “Argi geratzen da jarrera proaktiboa daukagula, erreklamazioak denpora eta modu egokian konpontzeko”, baina autortu dau Aldundiak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

“eskuak lotuta dituala”, aurretik, foru erakundeari legez kanpoko zer edo zer gertatzen ari dala jakinarazoten deusan salaketaren bat jarten ez bada.

Isaac Fernández sozialistak adierazo dau “ondo ezagutzen dituala” jarduteko modu horreek, garraiolarien alkarteen bitartez, eta ez beteteak behin eta barriro ari dirala gertatzen, baina autonomoek gertakari horreek salatzeo bildurra daukiela, “salatu ezkerro barriro ez dituelako kontratauko”. Jesus Isasik (PP) jardunbide horreek epaitegietan salatzea eskatu dau, eta Aitor Torrek (Bildu) herri lanetako esleipenak lortzen dituen enpresak gehiago zaintzeko eskaria egin dau. Dana dala, autortu dau Aldundiak “eskuak eta hankak lotuta dituala” salaketarik aurkezten ez bada.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## **Bizkaia pide a los ayuntamientos que apliquen la normativa foral sobre la instalación de badenes**

Bilbao, a 4 de abril de 2014

La instalación de badenes y bandas sonoras en Bizkaia está regulado en la red foral de carreteras del Territorio por el Decreto Foral 88/2010, de 22 de junio. Esta norma, que no es de obligado cumplimiento para los tramos urbanos dependientes de los ayuntamientos, es tenida en cuenta por los municipios a la hora de instalar en sus calles estos elementos de reducción de velocidad. Pese a que los grupos junteros no se han puesto de acuerdo sobre si se cumplen o no estas recomendaciones en todos ellos, la cámara vizcaína se ha mostrado unánime a la hora de pedir que los ayuntamientos regulen este aspecto o, en su caso, adapten como propia la normativa de otras administraciones, algo que también ha sugerido la diputada de Obras Públicas, Itziar Garamendi, recogiendo las recomendaciones que ha realizado al respecto el Ararteko.

La responsable foral ha acudido esta mañana a la comisión de Obras Públicas y Transporte del parlamento vizcaíno, a petición del PP, a explicar los "condicionantes" que deben darse para colocar los Reductores de Velocidad y las Bandas Transversales de Alerta (BTA) en la red foral de carreteras según la normativa del Territorio, y para detallar los permisos y pasos que deben cumplirse para su instalación, cuya finalidad última es "garantizar la seguridad del tráfico y el entorno", ha dicho.

En lo que concierne a los badenes o reductores de velocidad, éstos no pueden colocarse en la red "Preferente" o "Básica", y en los primeros 50 metros de una carretera urbana, así como en tramos de habitual presencia de vehículos de emergencia o presencia habitual de ciclistas, entre otros puntos. Como norma general, únicamente pueden instalarse en tramos donde la velocidad sea reducida, y donde haya presencia de peatones y existencia de aceras.

Con respecto a los BTA se deben colocar en aquellos lugares donde se quiera advertir al conductor que se aproxima a un lugar donde debe disminuir la velocidad o aumentar su estado de alerta, normalmente fuera de zonas habitadas "debido al ruido molesto" que se produce al paso de los vehículos.

Garamendi ha recordado que estas normas son de aplicación en la red foral de carreteras y no en los viales municipales, "aunque somos conscientes de su utilización como manual de referencia por parte de los municipios" que carecen de regulación, ha dicho. En respuesta al PP, la diputada ha confirmado que la instalación de estos elementos de seguridad vial debe ir acompañada del correspondiente "estudio de idoneidad", que debe ser elaborado bien por el departamento que dirige o por el Ayuntamiento que quiera instalar en su municipio un elemento que sirve para calmar o reducir la velocidad en las vías urbanas.

PP y PSE-EE creen que esta norma "se incumple" en muchos ayuntamientos. "Igual habría que modificar la norma foral" ha recomendado el popular Jesús Isasi. Hay que "darle una vuelta" al asunto ya que los ayuntamientos los colocan "como quieren" y la "mayoría de las veces" no cumplen con la normativa, ha coincidido el socialista Joaquín Colmenero.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

EH Bildu ha recordado también que la norma no es de obligado cumplimiento y, pese a eso, Aitor Torre piensa -al contrario que PP y PSE-EE- que no se producen incumplimientos. En cualquier caso, a su juicio, este asunto “merece más atención”, ya que los badenes “afectan a la salud laboral de taxistas y conductores de autobús”, y las bandas sonoras son un “peligro” para los ciclistas.

### PLANTA DE HORMIGÓN EN LA GEREDIAGA-ELORRIO

Por otro lado, Garamendi ha confirmado que la instalación de la planta de hormigón existente en el límite de los municipios de Abadiño y Atxondo para construir la Gerediaga-Elorrio, está recogida tanto en el proyecto constructivo de esta carretera como en la Declaración de Impacto Ambiental de esta obra, algo que había negado previamente el apoderado de EH Bildu, Aitor Torre, quien ha afirmado que la planta que abastece de hormigón a esta obra es “ilegal por carecer de licencia de actividad” del ayuntamiento de Abadiño.

La diputada ha asegurado que su departamento no está cometiendo “ninguna ilegalidad”. “Corresponde al ayuntamiento de Abadiño establecer si es necesaria o no la licencia municipal”, ha dicho, y según ha confirmado después la jeltzale Nerea Ahedo, el municipio no ha movido ficha. “El propio ayuntamiento debe decidir si se necesita. La Diputación ha considerado que no es necesaria al ser un elemento auxiliar”, ha dicho Ahedo.

Garamendi ha reprochado a Torre que genere continuamente “dudas” sobre esta carretera que se ha convertido en un “clásico” en las Juntas Generales, ya que EH Bildu no cree en la necesidad y utilidad de este vial, algo que ha negado el apoderado de la coalición abertzale. “Me resulta curioso que sobre una mentira o el desconocimiento de la realidad se genere esta solicitud de comparecencia que le sirva a usted para volver a insinuar cualquier circunstancia negativa sobre la Gerediaga-Elorrio”, le ha reprochado la diputada.

### DILATACIÓN DE LOS PAGOS A TRANSPORTISTAS DE ÁRIDOS

Por otra parte, el PSE-EE solicitaba la presencia de la diputada en la comisión para denunciar la dilatación de los plazos de pago a transportistas de áridos por parte de empresas adjudicatarias de obra pública y para preguntar si la Diputación podía hacer algo al respecto. Según el socialista Isaac Fernández, existen empresas que están alargando estos plazos “como media hasta los 210 días y hay casos de hasta 350 días”, cuando la Ley de Morosidad 15/2010 “intenta reducir” estos plazos “a no más de 60 días” en el caso de operaciones entre empresas.

La Diputación es “consciente” de la importancia del cumplimiento de los plazos de cobro de los trabajos y, por ello, en los pliegos que rigen los contratos de obra pública foral se establecen específicamente las obligaciones que tiene el contratista para garantizar el cobro “dentro de los plazos legalmente establecidos”, y fija las medidas a adoptar si se produce algún incumplimiento.

Garamendi ha recordado que si se produjera un impago y el subcontratista lo comunica a Interbiak, esta organismo tiene capacidad para “retener” la cantidad reclamada hasta que se resuelva la reclamación. “Queda patente que tenemos una actitud proactiva porque se resuelvan las reclamaciones en tiempo y en forma”, pese a reconocer que la Diputación está “atada” si no



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

se produce previamente una denuncia que informe al ente foral de que se está cometiendo una ilegalidad.

El socialista Isaac Fernández ha dicho ser “conocedor” de estas prácticas a través de las asociaciones de transportistas, y que las mismas están ocurriendo “una y otra vez”, si bien los autónomos tienen temor a denunciar los hechos "porque con eso consiguen que no les vuelvan a contratar". Jesus Isasi (PP) ha pedido que se denuncien estas prácticas en los tribunales y Aitor Torre (Bildu) ha reclamado mayor vigilancia a las empresas adjudicatarias de obra pública, pese a reconocer que la Diputación "está atada de pies y manos" si no hay denuncias.